

## AURKEZPENA

*Iragana ez da gure, jitekoa ez da gure;  
ez da gure presentean dena baizik.*

Presentea omen da erreala dugun denbora bakarra. Jin bezain laster iragana da, hondarra hatz tartetan nola. 'Hemen' harrapa dezakegu gure tokian geldi, edo hori uste dugu. 'Orain'-ik ezin harrapa, ordea, iraganari eta geroari pittinik kendu gabe, edo hori ematen du, behintzat. Denbora espazioa baino irrealagoa iruditu zaigu beti. Baita, seguru asko, azalean karga-karga eginda ageri zaigun barraskiloari ere. Elikadura dakarkigu. Elikadura osasungarria gogoarentzat. Funtsezko elikadura.

2005.eko lehen ale honen gai nagusia hizkuntza da, dudarik gabe. Hizkuntza ikuspuntu desberdinetatik, interes desberdinekin aztertua. Hasteko, Noam Chomskyren lan iraultzailea dakargu. Skinnerren *Verbal Behavior* liburuari egindako kritikak hizkuntzalaritza soilik ez, gogoari buruzko jakintza guztiak jarri zituen hankaz gora, ikuspegi kognitiboa esaten zaionari bidea emanaz. Harrigarria da nola egin litekeen horren liburu erreseina luzea eta, batez ere, horren eragin handikoa. GOGOAK argitaratu beharra zeukan itzulpen hau. Eta Pello Huizik egin du GOGOarentzat. Eskerrak berari hartutako lan ikaragarriarengatik. Eskerrak Chomskyri proposatu eta berehala baimena emateagatik.

2005.ean 100 urte bete dira Sartre jaio zenetik. Garai gogorrenetan euskaldunen lagun agertu zen filosofoa ahaztuxea daukagula dirudi eta gogoratu dutenek lausoegi hitz egin dute haren filosofia jardunez. GOGOArene omenaldi hau laburra da, baina haren hitzak ekarri dizkigu Jesus Mari Larrazabalek euskarara.

*Zabal-zehatz begiraturaz* atalean Enez Ezenarrok matematikaren eta matematikaren filosofiako irakasle entzutetsuenetako baten ekarpenen nondik norakoak azaltzen dizkigu, artikulua zabal eta zehatzean.

Gainerakoan, artikulua beste bi dira. Batak, Itziar Aduriz, Klara Ceberio eta Arantza Diaz de Ilarrazarenak, euskarari begiratzen dio, euskarazko fenomeno jakin bati, anaforari, informatikaren ikuspegitik. Besteak, Guadalupe Lopetegirenak, Grezia klasikoko filosofo handienetako baten obra jakin baten, *Erretorikaren*, eragina du aztergai.

Ale honetako lehen bi liburu kritikek ere hizkuntza dute aztergai: azken urteotako pragmatikan eragin handia izan duten bi libururenak dira kritikak. Joana Garmendiak Robyn Carston pragmatikariaren lan mardula kritikatu du, Kepa Kortak François Recanati hizkuntzaren filosofoarena.

Azken liburu kritika, Rod Girleren logika modaleko sarrerarena, Jesus Mari Larrazabalek egin du.

Alea ohiko aurkezpen laburren eta kongresu, jardunaldi eta ikastaroen atalekin ixten da.

On egin dizuela dakarkizuegun menu osasungarriak!

*Zuzendariak*

Donostian, 2005eko apirilaren 25ean